



DATUEN BABESAREN ARLOKO ESKUBIDEEN DESKRIBAPENA

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 Erregelamenduak (2016ko apirilaren 27koa, pertsona fisikoak babesteari buruzkoa, datu pertsonalen tratamenduari eta datu horien zirkulazio libreari dagokionez. Araudi horrek 95/46/EB Zuzentaraua indargabetzen du) eta 3/2018 Lege Organikoak (abenduaren 5koa, datu pertsonalak babesteari eta eskubide digitalak bermatzeari buruzkoa) ahalbidetzen dute tratamenduaren arduradunaren aurrean eskubide hauek baliatzea: sarbiderako eskubidea, zuzentzeko eskubidea, uko egitekoa, ezabatzea (“ahazteko eskubidea”), tratamendua mugatzekoa, eramatekoa eta banakako erabakien xede ez izatekoa.

Eskubide horiek honako ezaugarri hauek dituzte:

- Horiek baliatzea doakoa da.
- Eskubideak zuzenean balia daitezke, edo legezko ordezkari baten edo ordezkari boluntario baten bidez; interesdunaren nortasuna ziurtatu behar da eta, hala dagokionean, ordezkari-izaera.
- Eskaerak hilabeteko epearen barruan erantzun behar dira. Epe hori bi hilabete gehiago luza daiteke, beharrezkoa bada, eskaeraren konplexutasuna eta eskaera kopurua aintzat hartuta.
- Eskaerak, modu agerian, oinarririk gabeak edo gehiegizkoak (adibidez, errepikakorrak) badira, tratamenduaren arduradunak kanon bat kobratu ahal izango du, jasandako administrazio-kostuekiko proportzionala, edo eskaeraren gainean jarduteari uko egin ahal izango dio.

SARBIDERAKO ESKUBIDEA

Tratamenduaren arduradunaren eskutik interesdunari dagozkion datu pertsonalak tratatzen ari diren edo ez jakiteko eskubidea eta, hala bada, datu horiek eta honako informazio hau eskuratzeko eskubidea:

- Tratamenduaren helburuak.
- Tratatzen ari diren datu pertsonalen kategoriak.
- Datu pertsonalak zer hartzaileri edo hartzaille-kategoriari komunikatu zaizkien edo komunikatuko zaizkien; zehazki, hartzailleak hirugarrenak edo nazioarteko erakundeak direnean.
- Datu pertsonalak gordetzeko aurreikusitako epea.
- Kontrol-agintaritza baten aurrean erreklamazio bat aurkezteko eskubidea;
- Erabaki automatizatuak, profilak egitea barne.

Errepikakortzat har daiteke sarbiderako eskubidea sei hilabeteko epean behin baino gehiagotan baliatzea, horretarako arrazoi legitimorik egon ezean.

ZUZENTZEKO ESKUBIDEA



Tratamenduaren arduradunak interesdunari dagozkion datu pertsonal okerrak zuzentzeko eskubidea da, behar baino gehiago luzatu gabe.

Tratamenduaren helburuak aintzat hartuta, interesdunak eskubidea izango du osatu gabe dauden datu pertsonalak osatzeko; adierazpen gehigarri baten bidez ere egin dezake hori.

Zer daturi buruz ari den eta zer zuzenketa egin behar den adierazi behar du kaltetuak eskaeran. Beharrezkoa denean, tratamenduaren xede diren datuak zehatzak ez direla edo osatuta ez daudela egiaztatzen duen dokumentazioa gehitu beharko du.

EZABATZEKO ESKUBIDEA

Dagozkion datu pertsonalak ezabatzeko eskubidea da, honako zirkunstantziaren bat gertatzen denean:

- Datu pertsonalak, dagoeneko, ez direnean beharrezkoak jaso ziren edo tratatu ziren helbururako;
- Interesdunak tratamenduaren oinarrian zegoen baimena kentzen duenean eta tratamenduak ez duenean beste oinarri juridikorik;
- Interesdunak tratamenduari uko egiten dionean eta tratamendua legitimatzen duen beste arrazoirik gailentzen ez denean;
- Datu pertsonalak legez kontra tratatu direnean;
- Tratamenduaren arduradunari aplikatzen zaion Batasuneko edo estatu kideetako zuzenbidean ezarritako legezko betebeharrak bat betetzeko datu pertsonalak ezabatu behar direnean;
- Haien datu pertsonaletarako edozein esteka deuseztatzeko eskubidea, datu horiek ezabatzeko betebeharra dagoenean (ahazteko eskubidea).

Dena den, eskubide hau ez da mugagabea. Hala, egingarria izan daiteke datuak ez ezabatzea, tratamendua beharrezkoa denean honakoetarako: adierazpen- eta informazio-askatasuna baliatzeko; legezko betebeharrak bat betetzeko; interes publikoko edo tratamenduaren arduradunari emandako ahalmen publikoak baliatuz egindako egiteko bat betetzeko, interes publikoko arrazoiengatik, osasun publikoaren arloan, interes publikoko fitxategi-helburuekin, ikerketa zientifiko edo historikoko helburuekin edo helburu estatistikoekin; edo erreklamazioak idazteko, gauzatzeko edo horien aurrean defendatzeko.

Ezabatzeko eskubidea baliatzea eskatu behar baduzu, eskaeran adierazi behar duzu. Era berean, ezabatzeko eskubidea zer tratamenduren gainean eta zer tratamendu-arduradunen gainean baliatu nahi duzun adierazi behar duzu.

TRATAMENDUA MUGATZEKO ESKUBIDEA

Balizko kasu hauetan datu pertsonalen tratamendua mugatzeko eskubidea da:

- Datu pertsonalen zehaztasuna inpugnatzen denean, tratamendu-arduradunak datu horiek egiaztatzeke behar duen epean zehar;



- Tratamendua legez kanpoko denean eta interesdunak, datu pertsonalak ezabatzea eskatu beharrean, horien erabilera mugatzeko eskatzen duenean;
- Tratamenduaren arduradunak dagoeneko ez dituen datu pertsonalak behar tratamenduaren helburuetarako, baina interesdunak behar dituen erreklamazioak idatzi, gauzatu edo horien aurrean defendatzeko;
- Interesdunak tratamenduari uko egin dionean, tratamenduaren arduradunaren arrazoi legítimoak interesdunaren arrazoi legítimoei gailentzen zaizkien egiaztatzen den bitartean.

Mugatzeko eskubidea baliatzea eskatu behar baduzu, eskaeran adierazi behar duzu. Era berean, mugatzeko eskubidea zer tratamenduren gainean eta zer tratamendu-arduradunen gainean baliatu nahi duzun adierazi behar duzu.

ERAMATEKO ESKUBIDEA

Ohiko erabilerako eta irakurketa mekanikoko formatu egituratu batean datu pertsonalak jaso eta beste tratamendu-arduradun bati bidaltzeko eskubidea, betiere tratamendua bitarteko automatizatuen bidez egiten bada.

Eskubide hau honako kasu hauetan aplikatu behar da: interesdunak baimena eman duenean haren datu pertsonalak tratatzeko edo tratamendua beharrezkoa denean kontratu bat gauzatzeko.

Ez da aplikatu behar tratamenduaren oinarri juridikoa baimena edo kontratua ez den kasuetan.

UKO EGITEKO ESKUBIDEA

Datuen arduradunak interesdunari dagozkion datu pertsonalak tratatzeari uko egiteko eskubidea da, edozein momentutan eta interesdunaren egoera partikularrekin lotutako arrazoiengatik, interes publikoko egiteko batean edo ahalmen publikoen egikaritzean edo hirugarrenen legezko interesean oinarrituta, profilak egitea barne.

Tratamenduaren arduradunak datuak tratatzeari utziko dio, interesdunaren interesen, eskubideen eta askatasunen gainetik dauden ezinbesteko arrazoiak ziurtatu ezean, edo datu horiek beharrezkoak ez badira erreklamazioak idazteko, gauzatzeko edo horien aurrean defendatzeko.

Uko egiteko eskubidea baliatzea eskatu behar baduzu, eskaeran adierazi behar duzu. Era berean, uko egiteko eskubidea zer tratamenduren gainean eta zer tratamendu-arduradunen gainean baliatu nahi duzun adierazi behar duzu.

BANAKAKO ERABAKI AUTOMATIZATUEN XEDE EZ IZATEKO ESKUBIDEA

Zure datuen tratamenduan bakarrik oinarritzen den erabaki baten xede ez izatea bermatzeko helburua duen eskubidea da, profilak egitea barne, erabaki horrek eragin juridikoak baditu pertsonaren gain edo antzeko modu batean nabarmen eragiten badio.

Profilak egiteari dagokionez, zure datu pertsonalak tratatzean alderdi pertsonalak ebaluatzea da, zehazki, zure laneko errendimendurekin, egoera ekonomikoarekin, osasunarekin,



zaletasunekin edo interes pertsonalekin, fidagarritasunarekin edo jokabidearekin lotutako alderdiak aztertzea edo aurreikustea.

ZURE BAIMENA KENTZEA

DATUAK BABESTEKO ESPAINIAKO AGENTZIAN ERREKLAMAZIOA AURKEZTEA
